

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Hedegile kaleko 70.ean erabilgarri dauden lokalak alokairu-erregimenean esleitzeko deialdia

2017ko irailaren 1ean egindako bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Hedegile kaleko 70.ean erabilgarri dauden lokalak alokairu-erregimenean esleitzeko deialdia, baita esleipena arautuko duten baldintzen agiria ere. Era berean, horiek ALHAOn argitaratzea onetsi zuen.

Erabaki hori betetze aldera, deialdia argitaratzen da ondoren.

Ekonomia- eta administrazio-baldintzen agiria.

Lehena. Xedea

Erdi Aroko hiriguneko enpresa-zentroan —Hedegile kaleko 70.eko egoitza— erabilgarri dauden lokalak alokairu-erregimenean esleitzeko prozedura arautzea du xede deialdi honek.

Bigarrena. Lokalen kopurua eta ezaugarriak

Erdi Aroko hiriguneko enpresa-zentroan —Hedegile kaleko 70.eko egoitza— dauden lokal hauek —gaur egun erabilgarri daudenak— sartuko dira deialdi honetan:

ZENTROA	LOKAL MOTA	LOKAL-ZENBAKIA	AZALERA
Hedegile kalea, 70	Banakako erabilera	1	12,68 metro karratu
Hedegile kalea, 70	Banakako erabilera	2	9,77 metro karratu
Hedegile kalea, 70	Banakako erabilera	3	14,00 metro karratu

Hirugarrena. Lokal berriak eskuratu ahal izateko eskakizunak

Deialdi honetan parte hartzekotan, betebeharrak hauek bete beharko dituzte eskabidea egiten duten entitate edo pertsonak:

a) Beren negozio-estrategia ikus-entzunezkoen sektoreko produktu, prozesu edo zerbitzuetan oinarritzen duten enpresak izatea. Adibide gisa, hona zenbait sektore, produktu, prozesu edo zerbitzu:

1. Ikus-entzunezkoen sektorea: ikus-entzunezko produktuak ekoitzi, banatu eta erakustera ematea.

2. Eduki digitalen industriaren sektorea: hainbat esparru eta formatutan eduki digitalak sortzea: ikus-entzunezkoak, bide-jolasak, aisialdi- eta kultura-kontsumoa, zonalde komertzialak, museoak nahiz lasterka egiteko eta ibiltzeko lekuak edo beste ezagutarazteko ibilbide birtualak.

b) Lokal propiorik ez edukitzea edo lokala eskas geratu edo ezegoki suertatzea jarduera bertan bideratu edo hedatzeko.

c) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan jarduera horretarako edo antzeko beste baterako —hau da, lokala zein enpresa-proiektutarako eskatzen den, ildo bereko beste baterako— izena eman zenetik hiru urte baino gehiago ez igaro izana.

d) Beste enpresa-zentro publiko edo diru publikoz finantzatu batean kokatuta ez egon izana, bi urtetik gora, Udalaren enpresa-zentroetako lokalak eskuratzeko eskabidea aurkeztu aurretik, salbu eta enpresa-proiektua lanpostu-kopurua handitzea ekarriko duen aldakuntza edo handitzearen ondorio bada, edo —bideragarritasun-plana aztertzen delarik— lanpostuei eusteko nahitaez horrelako alokairu baten beharra dagoela ikusten bada.

e) Enpresa-plan bideragarri bat edukitzea, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak ontzat emana.

f) Jarduera zilegi eta etikoa garatzea, Erdi Aroko Hiriguneko Enpresa Zentroko azpiegitura-eta logistika-ezaugarriei egokitzen zaiena, eta inongo arriskurik sortzen ez duena, ez ingurumenaren ez gizartearen alorrean.

Baldintza berberak galdatuko zaizkie udal lokala eskatzen duen enpresa-proiektuan gehien-goia duten akziodunei, pertsona fisikoa nahiz juridikoa izan, lehendik sendotuta dauden beste batzuetatik aparteko enpresa-proiektuei laguntzea baita helburua.

Ezingo dute enpresa-zentroetako lokalik eskuratu horien ohiko funtzionamenduari kalte egiten dioten enpresa-jarduerak. Bestalde, ingurumenaren alorreko araudiaren mende dauden jarduerak burutzen dituzten enpresek hori betetzen dutela erakusten duten frogabideak aurkeztu beharko dituzte.

Era berean, enpresa-elkarteek ere eskatu ahal izango dituzte enpresa-zentroetako lokalak, baldin eta lokal bera eskuratzeko enpresek aurkeztutako eskabiderik ez badago. Eskabidea aztertu ondoren, Udalak lokala lagatzea onetsiko du, baldin eta eskabidea egiten duen enpresa-elkarteak bideratzen duen jarduerak lokal horiek zuzenduta dauden esparru eta sektoreekin zerikusia badu, edo enpresa-zentroetan kokatutako enpresekin sinergia eta harremanak sortzeko aukera interesgarritzat jotzen bada.

Laugarrena. Aurkeztu beharreko agiriak

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da Erdi Aroko hiriguneko enpresa-zentroan —Hedegile kaleko 70.eko egoitza— lokala eskuratzeko eskabidearekin batera:

— Eskabidea bera, Gasteizko Udalak emandako eredia baliatuz egina —argibide-lekuetan eskuratu ahal izango da—. Helbide elektronikoa adierazi beharko da bertan, ezinbestean.

— Bideratu nahi den jardueraren enpresa-plana: jardueraren deskribapena; izaera berritzailea, oinarri teknologikoa duena, bidezko bada; zein merkatutara zuzendua dagoen; inbertsioaren eta enplegu-sorkuntzaren aurreikuspena; finantzaketa, eta aurreikusitako finantza-laukiak.

Eskatzailea elkarte bat bada, lokaletan garatuko duen urteko jarduera-plana aurkeztu beharko du.

— Sustatzaileen curriculum vitae-a.

— Gizarte Segurantzari eta Foru Ogasunari egin beharreko ordainketak egin izanaren zinpeko aitortpena. I. eranskina.

— Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren —Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua— 60. artikuluan jasotzen diren debeku-egoeretak batean ere ez egotearen zinpeko aitortpena. II. eranskina.

— Pixkanaka enpresa-komunitatea sortzeko lan egiteko konpromisoaren aitortpena. III. eranskina.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri www.vitoria-gasteiz.org baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoa aplikagarri izango da.

Bide hauek baliatu ahal izango dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkeztuko:

1. Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea: Proiektu teknikoak eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahal izango dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak. Halakoetako artxibo grafiko eta testu-artxiboek pdf formatuan egon beharko dute, eta ez dute karpetarik eduki beharko, baizik eta agiri guztiak maila berean bilduta. Dokumentazioa euskarri digitalean aurkezteen delarik, dagokion erantzukizunpeko aitortpena erantsi beharko zaio —Udalaren webgunetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz—. Eskabideak behar bezala izenpetuta edo ontzat emanda egon beharko du. Euskarri digitala ez zaio itzuliko entitate eskatzaileari.

2. Dokumentazioa paperean aurkeztea: Paperean aurkezten den dokumentazioak DIN A4 edo DIN A3 tamaina eduki beharko du, eta, herritarrei laguntzeko bulegoko digitalizatzeko lana errazte aldera, orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe. Eskabideari paperezkoa ez den euskarriaren batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta, beraz, digitalizatzerik ez badago, karpeta batean aurkeztu beharko da, edukiaren aurkibidearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, non zehazten den zein udal zerbitzuri dagokion deialdiko diru-laguntzen lerroa.

3. Egoitza elektronikoaren bidez: Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal da, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org> helbidean ezarritakoari jarraituz.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsona edo entitateek tramitazioak iraun bitartean, operatibo, hartara aurkezten duten dokumentazioan aurkitzen diren akatsak zuzendu ahal izateko, edo aurkeztutako eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko beharrezko den beste edozein errekerimendu helarazi ahal izateko.

Bosgarrena. Eskabideak aurkeztea

Erdi Aroko hiriguneko enpresa-zentroan —Hedegile kaleko 70.eko egoitza— dauden lokalak erabiltzeko eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunetik. Lehen esleipena ebatzi ostean, eskabideak aurkezteko epea zabalik egongo da etengabe.

Gasteizko Udalaren erregistro nagusian nahiz herritarrei laguntzeko bulegoetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak, edo, bestela, burofaxez bidali, edo Gasteizko Udalaren orrialde ofizialean horretarako sortutako sarbidea baliatu, ahal izanez gero.

Seigarrena. Hautaketa-prozesua eta irizpide objektiboak

Aurkeztu ondoren, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko teknikariek balioetsiko dituzte eskabideak, OtiK 42ra bitarteko eskala batean, eta irizpide hauen arabera:

1. Enpresa-proiektua eta negozioaren bideragarritasuna. Enpresa-plana aztertuz balioetsiko da, eta, guztira, gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira. Honako hauek hartuko dira kontuan:

a. Sustatzaile-taldearen konpromiso-maila: 6 puntu

1. Enpresan erabateko dedikazioarekin lan egingo duen bazkide bakoitzeko 0,5 puntu emango dira, gehienez 4 puntura arte.

2. Sustatzaileek negozioan eta jarduera garatuko den sektorean duten esperientzia eta ezagutzagatik 2 puntu emango dira.

b. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa: 6 puntu

Ekonomi eta finantza azterketaren sakontasuna balioetsiko da, aldagai hauek aintzat harturik: finantziario premiak; finantziario iturriak; emaitzen aurreikuspena, bi urteren burura; errentagarritasun-atalasearen kalkulua; hileko diruzaintza-aurreikuspena, bi urteren burura...

c. Proiektuaren kalitate-, analisi- eta garapen-maila: 5 puntu

1. Produktu edo zerbitzuaren deskribapena, 1,25 puntu. Honako hauek balioetsiko dira atal honetan: definizioa eta ezaugarri teknikoen azalpena, estaltzen dituen beharrak, berrikuntza-maila.

2. Merkatuaren azterketa, 1,25 puntu. Honako hauek balioetsiko dira atal honetan: sektorearen ezaugarrien azterketa, eskariaren azterketa, konkurrentziaren azterketa, DAFO azterketa...

3. Merkataritza-plana, 1,25 puntu. Honako hauek balioetsiko dira: salmenten aurreikuspenaren azterketa, produktuaren politika, prezio-politika, banaketa-politika, komunikazio-politika, hazteko gaitasuna...

4. Antolakuntza-plana, 1,25 puntu. Honako hauek balioetsiko dira: ekoizpen-prozesuaren azterketa, hornidura, baliabide materialak, IKTen erabilera...

d. Produktu, prozesu edo zerbitzu berritzaileetan oinarritutako negozio-proiektua izanik, kode irekiko teknologiarren aplikazioa hartzea oinarritzat: 5 puntu.

e. Egindako inbertsioak: 3 puntu

Inbertsioko 3.000,00 euro banako 0,5 puntu emango dira.

f. Sortutako lanpostuen kopurua: 5 puntu

Puntu 1 emango da lanaldi osoko lanpostu sortu berri bakoitzeko

2. Negozioaren antzinatasuna, proiektua aurkezteko unean. Sortu berriak diren negozioei 3 puntu emango zaizkie, urte bete baino gutxiago dutenei 1,5 puntu, eta urtebete eta bi urte bitartekoei, berriz, puntu 1. Atal honetan gehienez ere 3 puntu atera ahal izango dira.

3. Eskabidea egiten den unerako sortutako lanpostuen kopurua: puntu 1 mugarik gabeko kontratu bakoitzeko; 0,5 urtebetetik gorako kontratu bakoitzeko, eta 0,25 urtebetetik beherako kontratu bakoitzeko. Atal honetan gehienez ere 8 puntu atera ahal izango dira.

Kontratatuak nolabaiteko ezintasunen bat badute, edo krisiak bereziki kaltetutako gizatalderen bateko kide badira —emakumeak, gazteak edo luzaroan langabezian daudenak— puntuazio gehigarria izango dute:

— 1,25 puntu, sortzen den kontratu mugagabe bakoitzeko;

— 0,75 puntu urtebetetik gorako kontratu bakoitzeko;

— 0,50 puntu urtebetetik beherako kontratu bakoitzeko.

4. Emakumeen enplegua sustatzea: emakumeak buru dituzten proiektuek puntu bat izango dute.

5. Berdinketa sexu bereko pertsonen aurkeztutako proiektuen artean egokitzen bada, azalpen-txostenaren eta bideragarritasunaren atalean puntuaziorik handiena lortu duena nagusituko da. Irizpide hori aplikatu ondoren berdinketak jarraitzen badu, aurkeztutako eskabideen iriste-hurrenkera hartuko da aintzat.

Elkarren arteko lehia baliatuko da erabilgarri dauden lokalak esleitzeko, 15 puntuko gutxienerako puntuazioa lortzen duten eskabideen artean. Puntuaziorik handienetik txikienerako hurrenkeran ordenatuko da zerrenda, eta sailkapen horren arabera puntuaziorik handiena lortu duen eskabideari esleitzeko zaio lokala.

Zazpigarrena. Esleitzeko era eta itxarote-zerrenda

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko teknikariek balioetsiko dituzte eskabideak, aipatutako irizpideak aintzat harturik, eta Tokiko Gobernu Batzarra izango da organo eskuduna erabilgarri dauden lokalak esleitzeko.

Lokalak uzteko edo ukatzeko erabakia ALHAOn eta Udalaren webgune argitaratuko da.

Eskabidea onartzen zaien entitateen arduradunek bilera bat izango dute udal teknikariek, 15 eguneko epean lokala esleitu dakien.

Proiektua era positiboan balioetsi arren, aski lokalik ez eta halakorik eskuratzetik izan ez duten eskabideekin itxarote-zerrenda sortuko da, zeinek urte natural bateko balioa izango baitu, eta jendaurrekoa izango baita, interesdun orok izan dezan aztertzerik, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren iragarki-taulan. Une horretan lokalik erabilgarri ez dagoelako halakorik esleitzerik ez dagoen proiektu bat ebaluatzen den bakoitzean eguneratuko da zerrenda hori.

Eskabidea aurkeztu deneko urte naturala bukatu ondoren, zerrendan dauden eskatzaileek berriro adierazi beharko dute bertan jarraitzeko nahia, hilabeteko epean. Pertsona horiei gutun ziurtatua bidaliko zaie, epea bukatu aurretik, betebeharrak hori gogorarazteko eta, hartara, ez dezauden zerrendan duten lekua gal. Hala egin ezean, galdu egingo dituzte sortutako eskubideak, eta horiek berreskuratzekotan berriro aurkeztu beharko dute proiektu tekniko bat, zeinek une horretan indarrean dauden betebeharrak bete beharko baititu.

Eskabidea berritzeko, aski izango da Gasteizko Udalaren argibide-bulegoetan nahiz sailean bertan eskuratu ahal izango den eskabide-orria aurkeztea, zein lokaletarako lehiatu nahi den adierazten delarik bertan, eta orobat horien arteko lehentasun-hurrenkera. Itxarote-zerrenden urtebete naturaleko balio-aldia bukatzen denetik egin ahal izango da eskabide-berritze hori, hots, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrera.

Delako itxarote-zerrenda puntuaziorik handienetik txikienera ordenatuko da, eta urte naturalaren barruan lokalen bat erabilgarri geratuz gero, hurrenkera horretan eskainiko zaie haren ezaugarriak dituen lokal bat eskatu dutenei.

Lokala alokairuan uzteko nahiz eskabidea ezesteko erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta berorren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Zortzigarrena. Kontratuak formalizatzea

Alokairu-kontratuak idatziz formalizatuko dira, gehienez ere 30 eguneko epean, lokala esleitzen denetik.

Bederatzigarrena. Alokairuaren baldintzak

1. Enpresa-zentroetako alokairuen gehieneko iraupena bost urtekoa izango da bulegoen kasuan.

Honela egingo da:

— Lehenik diruz lagundutako hiru urteko kontratu bat sinatuko da. Gerora, bi bider berritu ahal izango da kontratua, urtez urte —zentroko gehieneko egonaldia, beti ere, bost urtekoa izango da—, baina diru-laguntzarik gabe.

— Kontratua luzatzekotan —interesdunak hala eskatzen duelarik—, aldeko txosten tekniko beharko da, non egiaztatzen den alokairuari eusteko premia dagoela, enpresaren bideragarritasunarekin edo iraupenarekin zerikusia duten irizpideengatik nahiz luzapena egitea gomendatzen duten koiuntura ekonomikoaren arloko alderdiengatik.

2. Esleitutako lokalak enpresaren jarduerarako egokia izateari uzten badio, hura baino handiago edo txikiago batera aldatzea eskatu ahal izango dute horiek, baldin eta ezaugarri horiek dituen lokalik badago erabilgarri. Horretarako, enpresak eskabide formala aurkeztu beharko du, aldaketa justifikatzen duten arrazoiak azalduz, eta Udalaren zerbitzu teknikoek onetsi beharko dute. Aldaketa horrek ez du ekarriko berekin zentroko egonaldiaren epeak —enpresa-zentroen araudiaren 14. artikuluan jasotzen direnak— luzatzea.

3. Kontratu berria egiteko erabakia hartzea Udalari dagokio, errentariak hala eskatu eta udal zerbitzu teknikoek aldeko txostena egiten dutelarik. Aldiz, txostena kontratu berria egitearen kontrakoa bada, arrazoitu egin beharko da hori, eta errentariari entzunaldia eskaini.

4. Errentariak hitzartutako epea bukatu aurretik jo ahal izango du kontratua iraugintzat. Nolanahi ere, gutxienez hilabete lehenago jakinarazi beharko du, idatziz. Kontratua bukatu baino lehen lokalari uko egiten dion entitateak ezin izango du gerora berriro lokalik eskatu.

5. Lokala enpresa-elkarte bati esleitzen bazaio, kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da —Udalak berraztertzerik izango du—. Era berean, Udalaren esku egongo da —aldez aurretik elkarteak hala eskatzen duelarik— urtebeteko luzapen bakar bat ematea.

Hamargarrena. Alokairuaren gaineko hobaria

Udalaren enpresa-zentroen programaren helburuak kontuan izanik, lokalen errentak hobaria izango du. Hain zuzen ere, honela zehaztuko da hobari hori:

— Lokalen errentak ehuneko 50eko hobaria izango du alokairuaren lehenengo hiru urteetan. Hobaria luzatu egingo da kontratuak iraun bitartean baldin eta hasieran aurreikusitako lanaldi osoko lanpostuen kopurua gainditzen bada.

— Errentaren ehuneko 10eko hobari gehigarria aplikatuko zaie kontratuak iraun bitartean mugarik gabeko eta lanaldi osoko 5 lanpostu baino gehiago dituzten proiektuei.

— Alokairu-erregimenean Udalaren enpresa zentroetako lokalen baten lagapena eskuratzen duten elkarteek lokalaren alokairu-prezioaren gaineko ehuneko 100eko hobaria izango dute bertan dauden aldian.

Hamaikagarrena. 2017ko prezioak

Hauek izango dira deialdiaren xede diren lokaletarako prezioak, 2017an:

LOKALA	AZALERA	ERRENTE	DIRUZ LAGUNDUA	BEZ	GASTU	GUZTIRA, HILEAN	BERMEA
				EHUNEKO 21	KOMUNAK	DIRUZ LAGUNDUA	
1. Bulegoa	12,68 metro karratu	55,2	27,6	5,8	53,65	87,04	110,39
2. Bulegoa	9,77 metro karratu	42,53	21,26	4,47	41,34	67,07	85,06
3. Bulegoa	14,00 metro karratu	60,94	30,47	6,4	59,23	96,1	121,89

Hamabigarrena. Jarduerari hasiera ematea

Gehienez hilabeteko epean eman beharko dio hasiera jarduerari esleipendunak, alokairu-kontratua formalizatzen den egunetik kontatuta. Behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio udal zerbitzu teknikoek hala egitea egoki ikusten badute, eta hala onartzen, epe hori luzatzerik izango da.

Hamahirugarrena. Alokairua ordaintzea

Errenta eta gastu komunak hilero ordaindu beharko dira, hilabete bakoitzeko lehenengo hamabost egunetan, toki-ogasunaren bulegoetan edo banku-helbideratzearen bitartez.

Hamalagarrena. Banako gastuak

Errentariaren eta ez besteren kontura joango dira honako gastu hauek:

- Banako kontagailua duten zerbitzuak baliatzearen ondorio direnak, hala nola ura, gasa, argindarra edo telefonoa.
- Aseguruari, garbiketari, mantentze-lanei eta higiezinan instalatutako ondasunen konponketa arruntei dagozkienak.
- Negoziolari dagozkion edo haren ondorioz ezartzen diren zerga, ariel, kontribuzio eta gainerakoak.

Hamabosgarrena. Jurisdikzioa

Deialdiaren xede diren lokalak esleitu, erabili eta gozatzeari dagozkienetan, oinarri hauetan aurreikusten denaz gain, Enpresa-zentroetako lokalak eskuratzeko prozedura finkatzen duen araudian jasotzen dena aplikatuko da.

Deialdi honen xede diren alokairu-kontratuak gauzatu eta betetzeari nahiz dituzten ondorioei dagokienez sortzen diren auziak ebazteko Gasteizko jurisdikzioan horretarako eskumena duen epaitegira joko da.

Eskaera

<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/67/96/46796.pdf>

I. Eranskina

Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekito betebeharrak ordainduak direla egiaztatzen duen zinpeko aitortpena.

<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/67/98/46798.pdf>

II. eranskina

. Kontratatzeke debekurik ez duela egiaztatzeke zinpeko aitortpena, 3/2011 legegintzako errege dekretuak –Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua– 60. artikuluan jasotakoaren arabera.

<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/67/98/46798.pdf>

III. eranskina

Zentroan pixkanaka enpresa-komunitatea sortzen laguntzearen alde lan egiteko konpromisoaren aitortpena.

<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/68/63/46863.pdf>

Vitoria-Gasteizen, 2017ko irailaren 1ean

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren

Saileko Administrazio Zerbitzuko burua

LUCIO CRUCELEGUI